

Euskadi Osorako Erabakiak

Disposiciones Generales del País Vasco

OSASUNKETA ETA KONTSUMO-SAILA

1787

Osasunketa eta Kontsumo-Sailburuaren 1988.eko Ekainaren 28ko AGINDUA, herritarren kontsumorako ur edangarrien fluoreztatzeari buruzko Martxoaren leko 49/1988 Dekretoa osatuz.

Martxoaren leko 49/1988 Dekretorearen bidez hasiarazten da Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herritarren kontsumorako ur edangarrien fluoreztatzeko-alorreko osasunketa-politikabidea, agin-txantsarrei aurre hartze-xedezkoa alegia, esku emanez Osasunketa eta Kontsumo-Sailburuari, azken erabakietatik lehenengoan, Dekreto hori garatzeko eta egiteratzeko beharrezko maniak emateko.

Horren ondorioz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

1. Atala.- 1. Herritarren kontsumorako ur edangarriaren horniketa eta/edo banaketan aritu eta Martxoaren leko 49/1988 Dekretorearen arauera ur-fluoreztatzera behartuta dauden enpresa eta erakundeek, horretarako antolapide-egitasmo bat, beren edangarritze-tegiari egokituta, aurkeztu beharko dute Herri-Osasunerako Artezkaritzan, Agindu hau indarrean sartu eta 3 hilabeteko epearen barruan.

2. Egitasmo horrek, gutxienez, Agindu honekin ematen den Eraskinean zehazten diren teknika-betekizunak bildu beharko ditu, eta hurrengo ataletan adierazten diren teknika-eskakizunak bete.

2. Atala.- Jarraiangosakak jarri beharko dira nahitaez fluoreztatzeko-tegi guztietan:

1. Neurritz fluoreztatzeko sistemak, honako ezaugarriak dituztela:

a) Gerta litezkeen fluoruro-galerak eragozteko, fluoruroak uretaratze-tokia ura edangarritzeko bidearen buruan egon beharko da.

b) Fluor-gaiaren neurritailua eta gainerako antolapideak babespeko alor lehorrean egongo dira, fluoruroak uretaratze-tokitik hurbil.

c) Neurritzatzerakoan gai lehorrak erabiltzekotan, zaku-zamagailuak jarriko dira toberetan, aide-hautsezta-keta gutxitzeko xedez.

d) Bestelako gaiak uretaratzerakoan kontutan izango da hauen bateraezintasuna fluor-ionarekin. Horregatik bien uretaratze-tokiak ahalik eta urrutien egongo dira elkarrengandik, ondar moduko fluor galerak eragozteko.

2. Ur-etorriaren edo sare-sakaren neurgailuak.

3. Neurriak zaindu eta doitzeko-sistemak.

4. Deiadar eta berezko gelditze-sistemak, honako egoera hauek gertatzen direneko:

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1787

ORDEN de 28 de Junio de 1988, del Consejero de Sanidad y Consumo, por la que se desarrolla el Decreto 49/1988 de 1 de Marzo sobre fluoración de aguas potables de consumo público.

Mediante el Decreto 49/1988 de 1 de Marzo, se inicia en la Comunidad Autónoma Vasca, una política sanitaria en materia de fluoración de aguas potables de consumo público, con el fin de prevenir la caries dental, facultando en su disposición final primera al Consejero de Sanidad y Consumo, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la misma.

En su virtud, y en uso de las facultades que me han sido conferidas,

DISPONGO

Artículo 1.- 1. Las empresas y entidades abastecedoras y/o distribuidoras de agua potable de consumo público, obligadas a la fluoración de conformidad con el Decreto 49/1988, de 1 de Marzo, deberán presentar en la Dirección de Salud Pública, en el plazo de 3 meses contados a partir de la fecha de entrada en vigor de esta Orden, un proyecto de las instalaciones destinadas a tal fin, adaptadas a su planta de potabilización.

2. Dicho proyecto contendrá, con carácter mínimo, las especificaciones técnicas relacionadas en el Anexo que se adjunta a la presente Orden, y cumplirá los requisitos técnicos que se señalen en los artículos siguientes.

Artículo 2.- En toda planta de fluoración será obligatoria la instalación de los siguientes elementos:

1. Sistemas de dosificación, con las siguientes características:

a) Para evitar las pérdidas de fluoruros que pudieran producirse, el punto donde vayan a ser inyectados los fluoruros, estará situado después de todo el proceso de potabilización de agua.

b) El dosificador del compuesto fluorado y el resto de instalaciones deberán estar situados en un área seca y protegida, cerca del punto de inyección de los fluoruros.

c) Si se van a usar en la dosificación productos secos se colocarán en las tolvas cargadores de sacos para reducir la producción de polvo en el aire.

d) Cuando se estén añadiendo al agua otros productos, se considerará la posible incompatibilidad química de éstos con el ion fluor. Por ello, los puntos de inyección de ambos, deberán estar lo más alejados posible para minimizar las pérdidas de fluor por precipitación.

2. Medidores de caudal de agua o de la presión de la red.

3. Sistemas de control y regulación de la dosificación.

4. Sistemas de alarma y parada automática, para cuando se den cualquiera de las siguientes situaciones:

- Ur-etorria edo sarearen saka jaistea.
- Elektraindarraren etendura.
- F- fluoruro-ionaren gehiegizko zuzkiketa, sarean.

3. *Atala.*- 1. Fluoreztatze-tresneriaren tegiek eta fluoreztatzerako gaiak bilzeko antolapideek ondorengo teknika-eskakizunak beteko dituzte:

a) Hauts-hargailu edo bilgailuak jarriko dira, aideari garbi eusteko eta haize berritzea bermatzeko.

b) Fluoreztatzeko tresneria-tegiak daudeneko aldearen zola nahiz kimika-gaien biltegiarena, iragazgaitz, leun eta irristagaitzak izango dira, eta isurbidea izango dute eroritakoa errez garbitzeko moduan.

2. Biltegiatako aldea ez da horretarako baino erabiliko.

4. *Atala.*- Egitasmoa Herri-Osasunerako Artezkaritzan aurkeztu ondoren, honek horri buruzko erizpena emango du hilabeteko epean eta, Agindu honetan zehazten diren teknika-eskakizunak bete ondoren, egitasmoa onartezko erabakia hartuko du, fluoreztatze-alderdiekikoa zehazki.

5. *Atala.*- 1. Fluoreztatze-antolapideen lanak bukatuta, enpresek horren berri eman beharko diote Herri-Osasunerako Artezkaritzari, honek lanak egitasmoarekin bat ote datozenaren ikuskapena egin dezan.

2. Ikuskapena egin dezaten teknikariek beharrezko eritzitako agiriak eta ihardutze-saioak eskatu ahal izango dizkiete enpresei.

3. Esandako ikuskapena egin ondoren, dagokion agiria egingo da. Herri-Osasunerako Artezkaritzak, ikuskapen-agiriak ikusita, fluoreztatze-lanari ekiteko baimena emango du.

4. Antolapideen ihardunerako baimena ematezko Erabakian, uraren fluoreztatze-maila egokiak zehaztuko dira, honako erakuskari hauen arauera:

- Landugabeko uretan dagoen batz besteko fluoruro ionaren heina.

- Batz besteko urteko gehieneko hotz-beroa.

6. *Atala.*- 1. Herritarren kontsumorako ur edangarriak fluoreztatzeko, honako fluor-eratorriak baino ezin go dira erabili: Sodiozko Fluoruroa, sodiozko Fluorsilikatoa edo Azido Hexafluorosilizikoa, horniketa eta/edo banaketa-enpresaren aukeran, baldin eta behar bezala errolderatuta badaude.

7. *Atala.*- 1. Herritarren kontsumorako ur edangarrien horniketa eta/edo banaketan ari eta ur-fluoreztatzea egitera behartuta dauden enpresa eta erakundeek zaindu egin beharko dute, beti ere, uretango fluoruro ionaren maila 1,2 ppm-tik (puskak milioi bakoitzeko edo miligramoak litroko) gorakoa izan ez dadin inoiz ere.

2. Maila 1,2 ppm-tik gorakoa izatea gertatuz gero, gelditu egin beharko da berehalaxe fluoruro iona uretaratzea, eta ezin berriz hasiko antolapideak behar bezala egon eta maila egokiak bermatu ez daitezen artean.

8. *Atala.*- Fluoruro ionaren azterketak honako eskakizun hauek betez egingo dira:

- Caida del caudal o de la presión de la red.

- Interrupción del suministro eléctrico.

- Sobrecarga del ion fluoruro F- en la alimentación de la red.

Artículo 3.- 1. Los locales del equipo de fluoración y las instalaciones de almacenamiento de productos para la fluoración y deberán reunir los requisitos técnicos siguientes:

a) Se colocarán extractores o colectores de polvo, para mantener el aire limpio y asegurar la ventilación.

b) El suelo, tanto de la zona donde están ubicados los locales de equipo de fluoración, como de la zona de almacenamiento de los productos químicos, será impermeable, liso y antideslizante y dispondrá de un desagüe para que la limpieza de los derramamientos sea fácil de realizar.

2. El área de almacenamiento se destinará exclusivamente a esta finalidad.

Artículo 4.- Una vez que haya sido presentado el proyecto en la Dirección de Salud Pública, ésta emitirá un informe en un mes sobre el mismo y dictará, una vez que se han observado los requisitos técnicos señalados en esta Orden, resolución de aprobación del proyecto sobre los aspectos específicos de la fluoración.

Artículo 5.- 1. Una vez concluidas las obras de montaje de las instalaciones de fluoración, las empresas deberán ponerlo en conocimiento de la Dirección de Salud Pública, a fin de que se practique la oportuna inspección sobre la adecuación de la obra al proyecto aprobado.

2. Los técnicos que realicen la inspección podrán exigir de las empresas, la documentación y pruebas de funcionamiento que estimen oportunas.

3. Realizada la mencionada inspección, se levantará el acta correspondiente. La Dirección de Salud Pública, autorizará, una vez comprobadas las actas de inspección, la puesta en funcionamiento del proceso de fluoración.

4. En la Resolución por la que se autorice el funcionamiento de las instalaciones se fijarán los niveles óptimos de fluoración en el agua, en función de los siguientes factores:

- Concentración media del ion fluoruro en las aguas brutas.

- Media anual de las temperaturas máximas.

Artículo 6.- 1. Para realizar la fluoración de las aguas potables de consumo público, únicamente podrán emplearse los siguientes compuestos fluorados: Fluoruro Sódico, Fluorosilicato sódico o Acido Hexafluorosilícico, a elección de la empresa proveedora y/o distribuidora, siempre y cuando se hallen debidamente registrados.

Artículo 7.- 1. Las empresas y entidades abastecedoras y/o distribuidoras de aguas potables de consumo público obligadas a realizar la fluoración, deberán en todo caso vigilar que el nivel de ion fluoruro del agua no sobrepase en ningún momento 1'2 ppm. (partes por millón o miligramos litro).

2. En el supuesto de que el nivel supere el 1'2 ppm. deberá paralizarse inmediatamente la adición de ion fluoruro, no pudiendo reanudarse el proceso hasta que las instalaciones estén en perfectas condiciones y se garanticen los niveles adecuados.

Artículo 8.- La analítica del ion fluoruro, se realizará con las siguientes características:

- a) Azterketen sarritasuna.
 - Landugabeko ura: Egunerero.
 - Ur landua: Etengabeko irudi-zehaztapena.
 - Banaketa-sarea: Egunerero. Usi-asterketen zenbatekoa sarearen haundi eta ezaugarrien heinekoa izango da.

b) Errolde-liburu bat egongo da saiaketategi guztietan, eguneroko azkerta-ondorioak, eguna, tokia eta egin duena ere jasotzeko. Halaber, atera daitezen etengabeko irudi-zehaztapenak ere jarriko dira liburu honetan.

c) Horniketa-enpresek eguneroko uretaratzen den kimikagaiaren pisua eta lantzen den ur-hainbatekoa ere jasoko dute liburu honetan.

9. *Atala.*- Fluoreztatze-tegien ihardunerako honako eskakizun hauek beteko dira:

a) Tresneriaren alde mugikor guztiak, behar bezala garbi, labandu eta erdoil gabe egongo dira.

b) Elektra-indarrezko motoreek, neurritailuek eta datxekien antolapideek zaintze-lanetarako egun-araua eduki beharko dute, eta bai osakaien zerrenda eta aldaketak egiteko arauak ere.

c) Enpresek zaingo-liburu bat izango dute, bertan antolapideen aldizkako azterketen ondorioak, neurketak, tegian egindako osakai-aldaketak eta esku dauden osakaiak jasotzeko.

10. *Atala.*- 1. Erabili daitezen kimikagai sendarrak behar bezala bilduta, lehor, toberarekiko egoki kokatuta egongo dira, eta bestelako kimikagaietatik bereizita ustegabeko nahasketak galerazteko moduan.

2. Azido fluosilizikoa piloka gorde behar izatekotan, barrutik ebonitatu edo plastikoztatutako ontzietan egingo da, segurantzako upeltxoa eta ontzitikako gasak arazteko antolapideak dituela, indarreango arauak agindu dezaten moduan.

3. Zaku edo upeletan gera daitezen hondarrak kentzeko, garbitu beharko dira, hustu ondoren, ur piloaz, eta gero ezereztatu. Ez dira inolaz ere berriz erabiliko.

4. Hondakin-urak ez dira zuzen ixuriko estolda-sarean, baizik eta berdinkatze-ontzi bat erabili beharko da, haietan egon litezkeen fluoruro-ionaren gaindikinak zirindu edo indargabetezko.

11. *Atala.*- 1. Osakidetzak, hiru hilabetez behin, ikuskatu egingo ditu antolapideak eta tegien osasunketa-osasunbidezko egoera, zaingo-liburuak eta azterketen erroldel-liburuak.

2. Osasunketa eta Kontsumo-Sailak hala badagokio, egin dezan osasunketa-artak ez die horniketa eta/edo banaketa-enpresa eta erakundeei indarreango arauak agintzen duten arta eginbeharra kentzen.

12. *Atala.*- Tegia ihardunari eragin diezaien edozein gertaera jakinarazi beharko zaio Herri-Osasune-

a) Frecuencia de muestreo.

- Agua bruta: Frecuencia diaria.

- Agua tratada: Registro gráfico continuo.

- Red de distribución: Frecuencia diaria. El número de muestras será representativo del tamaño y características de la red.

b) Existirá un libro de registros en todos los laboratorios donde se anotarán los resultados analíticos diarios obtenidos, fecha, lugar de muestreo y persona que lo realice. Asimismo se adjuntarán en este libro los registros gráficos continuos que se obtengan.

c) Las empresas abastecedoras anotarán igualmente en este libro, el peso del producto químico dosificado y el volumen de agua tratada diariamente.

Artículo 9.- Para el funcionamiento de las plantas de fluoración deberán observarse las siguientes instrucciones:

a) Todas las partes móviles de la maquinaria deben mantenerse convenientemente limpias, lubricadas y libres de óxido.

b) Los motores eléctricos, dosificadores y el equipamiento relacionados con ellos, deberán ir acompañados de un calendario de operaciones de mantenimiento, así como de una lista de piezas e instrucciones para recambios.

c) Las empresas dispondrán de un libro de mantenimiento, donde se anotarán los resultados de las revisiones periódicas de las instalaciones, calibraciones, sustituciones de elementos de la planta y recambios disponibles.

Artículo 10.- 1. Los productos químicos sólidos que se utilicen, deberán mantenerse debidamente almacenados, secos, situados convenientemente respecto de la tolva y aislados de otros productos para evitar mezclas accidentales.

2. El Ac. fluosilícico si se tiene que almacenar en grandes cantidades, se hará en tanques ebonitados o plastificados interiormente, equipados con cubeto de seguridad e instalaciones de depuración de los gases de ventilación del tanque, según indique la reglamentación vigente.

3. Para eliminar los restos de productos químicos de los sacos o bidones, se deberán aclarar, una vez vacíos, con abundante agua siendo posteriormente inutilizados. De ninguna manera serán reutilizados.

4. Las aguas residuales no serán vertidas directamente a la red de saneamiento, sino que deberá utilizarse un tanque de homogenización con el fin de diluir o neutralizar el exceso de ión fluoruro que pudieran contener.

Artículo 11.- 1. Se realizarán por parte del Servicio Vasco de Salud/Osakidetzak, revisiones de las instalaciones y de las condiciones higiénico sanitarias de los locales así como de los libros de mantenimiento y de los libros de registro de la analítica, con frecuencia trimestral.

2. El control sanitario, que en su caso lleve a efecto el Departamento de Sanidad y Consumo, no excluye las obligaciones de control que en virtud de las disposiciones vigentes hayan de realizar las empresas y entidades abastecedoras y/o distribuidoras.

Artículo 12.- Cualquier incidencia que afecte al buen funcionamiento de la planta, deberá ser comunicada a la

rako Artezkariari, eta bai beharrezko zuzentze-neurriak eta hauek egiteratzeko denbora ere.

13. Atala.- Agindu honek dioenarekiko hauspeni arduralaritzaz-hauspen eritziko zaie, eta horien erantzukizuna 1986.eko Apirilaren 14ko Osasunetari buruzko Lege Nagusiaren I Izenpuruko VI Atalburuan agintzen denaren arauera eskatuko.

AZKEN ERABAKIA

Lehenengoa.- Esku ematen zaio Herri-Osasunerako Artezkariari Agindu hau egiteratzeko eta osatzeko beharrezko neurriak hartu ditzan.

Bigarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan sartuko da indarrean.

Gasteizen, 1988.eko Ekainak 28.

Osasunketa eta Kontsumo-Sailburua,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

ERASKINA

FLUOREZTATZE-TEGIAREN EGITASMOAREN GUTXIENEZKO EDUKIAK

1. ALDERDI OROKORRAK.

1.1. Nortasun-zehaztapena, baltzu-izena, ur edangarria zuzkitzen dion lurraldea, bizilagun onarubidedun-zenbatekoa eta batazbeste urtean zuzkitutako ur-hainbatekoa.

1.2. Edangarritze-tegiaren, erabilitako bide eta gaien, eta horniketaren zehaztapena.

1.3. Arta-azterketetarako zerbitzuen azalpena.

1.4. Azken urtean egindako landugabeko eta landutako uraren azterketa baliotsuak.

2. FLUOREZTATZE-TEGIEN ALDERDI ZEHATZAK.

2.1. Neurritzatze-sistema.

2.2. Ur-etorriaren neurkailuak.

2.3. Fluoruro ionaren azterketa.

2.4. Urteko batazbesteko gehienezko hotz-beroa.

2.5. Fluor-neurritzatzearen artabide eta doitze-modua.

2.6. Deiar eta geldiarazte-sistema.

2.7. Biltegietarako antolapideak.

2.8. Fluoreztatze-tresneriaren tegia.

2.9. Erabiliko diren gehigarriak, hauen ontziak eta neurriak hainbatzeko modua.

2.10. Lanariak eta ezaugarriak.

Dirección de Salud Pública, así como las medidas correctoras necesarias y el tiempo preciso para realizarlas.

Artículo 13.- Las infracciones a lo dispuesto en la presente Orden constituirán infracción administrativa que será exigida de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo VI del Título I de la Ley General de Sanidad de 14 de Abril de 1986.

DISPOSICION FINAL

Primera.- Se faculta al Director de Salud Pública para adoptar las medidas necesarias para la aplicación y desarrollo de la presente Orden.

Segunda.- La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de Junio de 1988.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.

ANEXO

CONTENIDOS MINIMOS DEL PROYECTO DE PLANTA DE FLUORACION

1. ASPECTOS GENERALES.

1.1. Identificación, razón social, ámbito territorial al que suministran agua potable, número de habitantes beneficiados y volumen anual medio de agua suministrada.

1.2. Descripción de la planta potabilizadora, de los tratamientos y productos utilizados, así como del abastecimiento.

1.3. Descripción de los servicios analíticos de control.

1.4. Análisis representativos de agua bruta y tratada, obtenidos en el último año.

2. ASPECTOS PARTICULARES DE LAS PLANTAS DE FLUORACION.

2.1. Sistema de dosificación.

2.2. Medidores de caudal del agua.

2.3. Analítica del ion fluoruro.

2.4. Media de las temperaturas máximas anuales.

2.5. Sistema de control y regulación de la dosificación.

2.6. Sistema de alarma y parada.

2.7. Instalaciones de almacenamiento.

2.8. Local de equipo de fluoración.

2.9. Aditivos a emplear, envases de presentación y cálculos de dosificación.

2.10. Personal y características.